



**EBAZPENA, 2011KO APIRILAREN 12KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, LANDA ESKOLA/ESKOLA TXIKIETAN IRAKASLE GISA ZERBITZUAK PRESTATZEKO ZENBAIT PLAZA, 2011-2011 IKASTURTEAN ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEITZEN DUENA.**

Biztanleria gutxiko baserri inguruetan eskola aktibo eta kalitatezkoa egotea funtsezkoa da beren iraupenerako. Ikasleria bere bizitokian eskolaratzeak biztanleen gizarte-harremanak era aktibo baten egituratzea posibilitatzen du eta familiek beste herri batzuetara emigratzea saihesten du.

Landa eskola hauetako irakasle-plantilak aldaketa ugari izaten ditu etengabeko lekualdatzeak direla eta, honek ikasleria eta ikastetxeen funtzionamenduan suposatzen dituen oztopoekin eta gainera ikastetxe hauetan hezkuntza proiektuen ezarpena eta jarraipena galarazten dituzte. Arazo hauek saihesteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, deialdi honen bitartez, landa eskolek edo eskola txikiek plantila egonkorragoa izan dezatela nahi du.

Deialdi honek hurrengo helburua du: Euskal Autonomia Erkidegoko landa eskola-eskola txikietan irakasle lanpostuak bete zerbitzu eginkizunetan edo aldi baterako esleipenez.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu dute zerbitzu-eginkizuna Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikulua — azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatu zuen lege hori— eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena arautzeko Dekretua).

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Egitura organikoa ezartzeko den irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 10. atalak xedatutakoa kontuan izanik, hau

**ERABAKI DUT**

**Lehena.-** Deialdi honek Euskal Autonomia Erkidegoko hurrengo landa eskola-eskola txikietan irakasleen lanpostuak betetzea du helburu zerbitzu eginkizunetan edo aldi baterako esleipenez:

HERRIA/LURRALDEA	IKASTETXEA	LANPOSTUAK
ARRANKUDIAGA BIZKAIA	ARRANKUDIAGA LHI	AHOLKULARIA 1
OLABERRIA GIPUZKOA	OLABERRIA LHI	GORPUTZ- HEZKUNTZAKO 1
ABALTZISKETA GIPUZKOA	TXALBURU LHI	GORPUTZ- HEZKUNTZAKO 1



ZESTOA GIPUZKOA	AIZARNA LHI	HAUR HEZKUNTZAKO1 INGELES A 1
--------------------	-------------	----------------------------------

**Bigarrena.-** Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Maisu/Maistren Kidegoko karrerako funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioak.

Ezin dute parte hartu izaera bereziko lanpostuen lekualdatze-lehiaketan destinoa lortu dutenek.

Halaber, bitarteko funtzionarioek parte har dezakete. Dena den, karrerako funtzionarioek eta praktiketako funtzionarioek lehentasuna izango dute.

Deialdi honetan parte hartzeko Bigarren Hizkuntza Eskakizuna izatea beharrezkoa da.

**Hirugarrena.-** Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Langileriaren Kudeaketa Zuzendariari zuzendutako eskaria aurkeztu behar izango dute eta I. Eranskinen ezartzen diren aurreikuspenei dagozkien merezimenduak eta eskatutako dokumentazioa ere.

Eskariarekin batera gehienez bost orrialde dituen memoria aurkeztuko da. Memoria hau, bete nahi diren lanpostuekin erlazionatuta egongo da.

Igorritako fotokopia guztiakin batera Lurralde Ordezkaritzek luzatutako erkatze-eginbideak ere igorriko dira.

**Laugarrena.-** Partehartze-eskaera, II. Eranskinen ereduaren arabera, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu behar izango da edo Administrazio Publikoen Lege Araubidearen eta Administrazio Prozedura Arrunteko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 atalean aurreikusitako edozein erregistrotan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua. Eskariarekin batera eskatutako baldintzen dokumentazioa eta alegatutako merezimenduak (dokumentazio originala edo behar bezala konpultsatua) eta memoria joango dira, **2011ko apirilaren 26 arte (hau barne)**. Parte hartzaile bakoitzak ezin izango ditu bete 3 eskaera baino gehiago, lanpostuak banan-banan eskaturik aukeratutako plaza adieraziz eta lehentasun irizpideaz ordenaturik joango dira.

Aurkez daitezke halaber, Eusko Jaurlaritzaren herritarrei arreta emateko edozein bulegotan, Zuzenean, ondoko helbide hauetan: Bizkaian, Gran Vía 85, 48011 Bilbo; Gipuzkoan: Andia 13, 20003 Donostia, eta Araban: Ramiro de Maeztu 10 behean, 01008 Vitoria-Gasteiz. Era berean, bulegotan informazio eta telefono-arreta eskatu ahal izango da zenbaki hauetan: EAE-tik: 012; EAE-tik kanpoko deiak: 945 018000, eta atzeritik: 00 34 945 018000

**Bosgarrena.-** Zerbitzu-eginkizunak Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariak ebatziko ditu eta Lurralde batzordearen proposamenaren aintzat hartuz. Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

- ▶ Dagokion Lurralde Historikoko Hezkuntza Lurralde Ordezkaria edo bere ordezkoa.
- ▶ Dagokion Lurralde Historikoko Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Arduraduna edo bere ordezkoa.



- ▶ Dagokion Lurralde Historikoko Ikuskaritza Teknikoko Lurralde Burua edo bere ordezkoa.
- ▶ Langileriaren Zerbitzuko funtzionario bat, idazkari bezala arituko dena.
- ▶ Eskola Txikietako koordinatzailea.

Era berean, irakaskuntzan ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana egon ahal izango da Batzordean. Batzordeak aholkulari teknikoak izan ditzake memoriak baloratzeko.

**Seigarrena.-** Hautagaien merezimenduak deialdi honetako I. Eranskinean argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira. Eskarian aurkezten ez diren merezimenduak ez dira baloratuko ezta eskarian aurkeztuta ere, behar bezala egiaztatuta ez daudenak.

**Zazpigarrena.-** Barematu eta gero, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren web orrian argitaratuko da deialdiaren behin-betiko ebazpena. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangaiei emandako puntuazioak azalduko dira, eta hiru laneguneko epea irekiko da erreklamazioak egiteko.

**Zortzigarrena.-** Erreklamazioak aztertu ondoren, Batzorde hautatzaileak Langileriaren Kudeaketa Zuzendariari deialdi honen ebazpen-proposamena igorriko dio. Honi erantsita, akta edo azken akta joango da, hautagai bakoitzari egokitutako balorazioak adieraziz eta hautatutakoen azken zerrenda ere.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak hautagaiei buruzko behin betiko ebazpena emango du, eta Hezkuntzako web orrian eta lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuko da.

Behin-betiko Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari argitaratu den datatik hilabeteko epean.

**Bederatzigarrena.-** Jatorrizko postuari dagokion ordainsaria emango die Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hautatutako izangaiei.

**Hamargarrena.-** Aukeratutako hautagaiei zerbitzu eginkizuna emango zaie 2011/2012 ikasturtean aipatutako lanpostuetan aritzeko.

Praktiketako funtzionario izangaien aukeraketa praktika-epea gainditzearen eta 2011-12 ikasturtean karrerako funtzionario izandatzearen baitan egongo da.

Era berean, aukeratuta gerta daitekeen bitarteko funtzionarioa lanpostu horretan 2011/2012 ikasturtean zehar izendatua izango da.

**Hamaikagarrena.-** Zerbitzu-eginkizunak esleituta dituzten pertsonak praktiketako funtzionario izendatzen badituzte, eginkizunok indargabetu egingo zaizkie. Zerbitzu-eginkizunok bakar-bakarrik mantenduko dira zerbitzu-eginkizunen lanpostuaren espezialitatea bat badator praktiken espezialitatearekin.

**Hamabigarrena.-** Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, plazak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.



2011/2012 ikasturterako ematen diren zerbitzu-eginkizunak hurrengo ikasturteetarako ere luza daitezke, egindako jarraipenaren eta ebaluazioaren arabera, eta lanpostuak lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzen ez badira.

**Hamahirugarrena.**- Eskatzaileek emandako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira deialdi hau kudeatzeko. Langileria Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko nahiz aurka egiteko eskubideaz baliatzeko (Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Sinatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan adierazitako moduan eta helburuaz lantzeko; era berean, deialdiaren izapideak betetzeko, baimena ematen du datuok argitara emateko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net)) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki tauletan.

**Hamalagarrena.**- Erabaki honek araupetzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako osagarri gisa urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea erabiliko da.

## ERREKURTSOAK

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta hurrengo ataletan xedatutakoaren arabera, erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordearen aurrean hilabeteko epearen barruan argitarapenaren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 12an

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Juan Manuel Aramendi Arteaga

**I. ERANSKINA****BAREMOA LANDA ESKOLA/ESKOLA TXIKIETAKO LANPOSTUAK ZERBITZU  
EGINKIZUNETAN BETETZEKO****I.- BAREMAZIO OBJETIBOA: GEHIENEZKO PUNTUAZIOA 15 PUNTU**

- 1.- Irakasle-jarduera: 0,5 puntu urteko; gehienez 2 puntu.
- 2.- Irakasle-jarduera eskatutako ikastetxean: 0,5 puntu urteko; gehienez 3 puntu.
- 3.- Lortu nahi den lanpostuarekiko irakaskuntza-esperientzia; gehienez 10 puntu.
  - a) Landa eskolekin erlazionatutako mintegi eta proiektuetan parte hartzea: puntu bat proiektu bakoitzeko eta gehienezko puntuazioa 3 puntukoa.
  - b) Aurkeztuko den eskolaren zenbait proiektutan parte hartzea: 0,5 puntu proiektu bakoitzeko eta gehienezko puntuazioa 4 puntukoa.
  - c) Eskatzen den lanpostuarekin zuzenki erlazionaturik ez dauden proiektu, ikastaro eta mintegietan parte hartzea: 0,25 puntu mintegi bakoitzeko eta gehienezko puntuazioa puntu batekoa.
  - d) Eskatzen den lanpostuarekin erlazionatutako argitalpenak: gehienezko puntuazioa 1 puntukoa.
  - e) Ikastaroak eman eta ponentzien aurkezpenak: ikastaroaren 10 orduko 0,5 puntu eta ponentzia bakoitzeko 0,5 puntu; gehienez 1 puntu.

**II.- MEMORIA.**

Aurkezten den lanpostuarekin erlazionatutako memoria: gehienez 5 puntu. Gutxienez 2,5 puntu lortzea beharrezkoa izango da.

Memoria gehienez 5 orrialdekoa izango da, orrialdearen alde batetik eta bete beharreko egiteko eta lanari buruzkoa izango da.



## **II. ERANSKINA**

### **AURKEZTUTAKO MEREZIMENDUEN ZERRENDA**

1.- IRAKASKUNTZA JARDUERA

2.- IRAKASKUNTZA JARDUERA ESKATUTAKO IKASTETXEAN

3.- LORTU NAHI DEN LANPOSTUAREKIKO IRAKASKUNTZA-ESPERIENTZIA

- a) Landa eskolekin erlazionatutako proiektuetan parte hartzea:
  
  
  
  
  
  
  
  
  
  
- b) Aurkeztuko den eskolaren zenbait proiektutan parte hartzea:
  
  
  
  
  
  
  
  
  
  
- c) Mintegietan parte hartzea:
  
  
  
  
  
  
  
  
  
  
- d) Eskatzen den lanpostuarekin erlazionatutako argitalpenak:
  
  
  
  
  
  
  
  
  
  
- e) Ikastaroak eman eta ponentziak aurkeztu: